



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ EZESTEN BAITA LEIOA KIROL ELKARTEAK EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN APELAZIO BATZORDEAREN EBAZPENAREN AURKA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA, KLUB HORREK FEDERAKUNDEAREN DIZIPLINA BATZORDEAREN ERABAKIAREN AURKA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOAN.**

---

**Esp.-zk.: 12/2017**

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.-** 2016ko abenduaren 20an, Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Batzordeak honako hau erabaki zuen Gazteen Euskal Ligaren barruan 2016ko abenduaren 4an Leioa Kirol Elkartek eta Ariznabarra Kirol Elkartek jokatu zuten partidari dagokionez:

*<<Bi taldeek jokalarien zerrenda behar ez bezalakoa izan zuten erreferentziako partidari, Gazteen Euskal Ligako plantilla osatzen duten zazpi futbolari baino gutxiago izan zituztelako jokoan; beraz, bi taldeei partida hori galdutzat ematea erabaki da, eta 150 €-ko isuna ezarri zaie, EFF-FVFaren Araudi Orokorraren 88. artikulua eta EFF-FVFaren Diziplina Araudiaren 46. artikulua aplikatuta>>.*

**BIGARRENA.-** Erabaki hori partida amaitutakoan idatzitako arbitroaren aktan oinarrituta hartu zen, bai eta Ariznabarra Kirol Elkartek jarritako salaketaren ondorioz abiarazitako informazio-espeditarearen barruan egindako jarduketetan ere; partida Gazteen Euskal Ligako 15. jardunaldiari zegokion.



**HIRUGARRENA.-** Leioa Kirol Elkarteak ez zuen alegaziorik aurkeztu Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Batzordean Federakundearen Zigor Araubidearen 110. artikuluan (*“Entzunaldi eskaera”*) aurreikusitako epearen barruan. Aldiz, Diziplina Batzorde horrek 2016ko abenduaren 7an emandako Ebazpenaren bitartez abiarazitako informazio-espeditentean aurkeztu zituen alegazioak. Alegazio horiek 2016ko abenduaren 9an aurkeztu ziren, idazki bidez, baina ez zuten proba-proposamenik egin.

**LAUGARRENA.-** Zigortzeko Ebazpenaren jakinarazpena jaso ostean, Leioa Kirol Elkarteak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Batzordearen Ebazpenaren aurkako errekurtsua aurkeztu zuen 2016ko abenduaren 28an, Federakundearen Apelazio Batzordean. Errekurtsio-idazkian, hainbat froga eskatzen ziren (dokumentuak, lekukoak eta bideoak erreproduzitzea), baina alde zuzenetik ez zen horrelakorik proposatu.

**BOSGARRENA.-** 2017ko urtarrilaren 3an, Euskadiko Futbol Federakundearen Apelazio Batzordeak Leioa Kirol Elkartearen errekurtsua ezestea erabaki zuen. Ebazpenean, Apelazio Batzordeak honako hau adierazi zuen Federakundearen Zigor Araubidearen 120. Artikuluari jarraituz: *“Gora jotzean ezin dira agiri edo froga-tresna gisa aurkeztu auzialdian aurkezteko eskueran egonik 110.2 artikuluan ezarritako preklusio-epean erabili ez ziren agiri haiek”*. Beraz, ezin da epez kanpo eskatutako froga bat onartu.

**SEIGARRENA.-** 2017ko urtarrilaren 16an, Leioa Kirol Elkarteko presidentearen idazkiari sarrera eman zitzaion Kirol Justiziako Euskal Batzordearen Idazkaritzan; idazki horren bitartez, Euskadiko Futbol Federakundearen Apelazio Batzordearen 2017ko urtarrilaren 3ko Ebazpenaren aurkako errekurtsua aurkeztu zuen; ebazpen horretan, Leioa Kirol Elkarteak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Batzordearen 2016ko abenduaren 20ko Ebazpenaren aurka aurkeztutako Errekurtsua ezestea erabaki zen.



**ZAZPIGARRENA.-** Urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 16.4 artikuluan oinarrituta, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurso horren izapidetzea onartzea erabaki zuen, eta espedientea eskatu zion Euskadiko Futbol Federakundeari. Era berean, alegazioak egiteko izapidea eman zion, egokitzen jotzen dituzten froga-eginbideak aurkezteko aukera emanaz.

**ZORTZIGARRENA.-** Halaber, Leioa Kirol Elkarteak aurkeztutako errekursoaren berri eman zitzaion Ariznabarra Kirol Elkarteari, nahi zituzten alegazioak aurkezteko aukera emateko.

**BEDERATZIGARRENA.-** 2017ko urtarrilaren 31n, Euskadiko Futbol Federakundeak igorritako espedientea jaso zen.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENA.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordearen esku-hartzea ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirolarenak, 138.a) artikuluan –106.2 artikuluari dagokionez– eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, adierazitako Batzordea arautzen duenak, 3.a artikuluan xedatutakoan oinarrituta dago.

**BIGARRENA.-** Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorren 88.3 artikulua araberak, *“Partidaren garapenean zehar taldeek zazpi jokalariz gutxienez osatuta egon behar dute, zeinek parte hartzen duten mailako plantilaren partaide izan behar dira. Bidegabeki zerrenda sartzetzat emango da, edozein kausagatik, jokalari baten kanporaketa eta minagatik aldaketa barne, talde batek aurreko lerroan aipatzen diren zazpi jokalari baino gutxiago osatuko balute taldea”*.



**HIRUGARRENA.-** Euskadiko Futbol Federakundearen Zigor Araubidearen 46.1 artikulua araberan, *“Partida batean parte hartzeko baldintzarik ez daukalako futbolari bat bidegabeki jokalaria-zerrendan sartzen duen klubari partida galdutzat emango zaio”*. 46. artikulua horren 3. zenbakiaren arabera, *“Artikulu honek aipatzen dituen arau hausteei dagokionez, ustezko hauslearen maila edo talde bereko klubek izango dute salatzaile gisa jarduteko eskubidea. Horrelakoetan, diziplina organo eskudunari esleituko zaio prozedura”*.

**LAUGARRENA.-** Euskadiko Futbol Federakundearen Zigor Araubidearen 110. artikuluan honela arautzen da entzunaldiaren eskaera: *“1. Aurreko artikulua aipatzen dituen jarduketetan, lehiaketak era egokian gara daitezten batzordearen berehalako erabakia beharrezkoa bada, interesdunek aurretiaz eskatu gabe gauzatuko dute entzunaldia. Batzordeari ahoz zein idatziz azalduko dizkiote partidaren aktan edo leudekeen eranskinetan bildutakoak edo partidarekin zerikusia duen beste edozein adierazpen dela eta beren alde egoki irizten dieten alegazioak. Halaber, eta hala badagokio, bidezko frogak ekarriko dituzte.*

*2. Eskubide hori kasuan kasuko partidaren ondorengo bigarren laneguneko arratsaldeko seietan prekluituko den epean erabili behar da. Epea amaitzean, azaldu nahi diren alegazioek batzordearen idazkaritzan egon behar dute.*

*3. Epemuga berean prekluituko dira, halaber, ustezko jokalaria-zerrenda bidegabeak direla eta aurkez litezkeen erreklamazioak, eta horrelakorik gertatu bada ere partidaren emaitza berez onetsita geratuko da baldin eta erreklamazioak aipatutako epearen barruan aurkeztu ez badira”*.

**BOSGARRENA.-** Euskadiko Futbol Federakundearen Zigor Araubidearen 120. artikulua araberan, *“Gora jotzean ezin dira agiri edo froga-tresna gisa*



*aurkeztu auzialdian aurkezteko eskueran egonik 110.2 artikuluan ezarritako preklusio-epean erabili ez ziren agiri haiek”.*

**SEIGARRENA.-** Inpugnatutako ebazpena zuzenbidearen araberakoa edo kontrakoa den erabakitzeko, gertakarien frogen gaia ere argitu behar da.

Kasu honetan, federazioaren zigorra eragiten duten gertakari faktikoak epailearen aktaren bidez egiaztatzen dira, dokumentu horretan jasotzen baitira federazioaren organo eskudunak gerora gaitzetsi eta zigortu zituen ekintzak.

Gauza jakina denez, epailearen aktak egiazkotasun-presuntzioa du. Horrek esan nahi du presuntzio horren kontra egiteko froga zehatz, eraginkor eta guztiz sinesgarri bat aurkeztu behar dela. Izatez, eztabaidarik gabeko doktrina da epailearen aktak egiazkotasun-presuntzioa izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak dioen bezala: *«izendatutako epaileak aktan jasotzen duen gertakarien kontakizunaren inpartzialtasuna eta objektibotasuna egiazkotzat hartzen dira bi klubekiko arrotza delako»* (2003ko urriaren 7ko sententzia, JUR 2003/104967).

Zentzu berean, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 50. artikulua, kirol-lehiaketan gidaritza epaile mota desberdinei esleitu eta gero, adierazten du hori egiten duten bitartean hartutako erabakiak egokitzat joko direla eta epaileen aktak lehiaketak normaltasunez garatzeko beharrezko bitarteko dokumentala izango direla.

Kasu honetan, errekurtsogileak gertakarien bertsio kontraesankor bat ematen du, eta epailearen aktaren egiazkotasun-presuntzioren kontra egiten du bideo bidezko froga bat proposatuz.



Proposaturiko frogari dagokionez, esan behar da epailearen aktan ez zela jasota geratu aipatzen den epailearen ustezko akatsaren inguruko alegaziorik eta, era berean, federazioaren egoitzan ez zela epailearen aktaren froga-balioa auzitan jartzeko frogarik proposatu.

Ondorio posible bakarra, beraz, inpugnatutako diziplina-zigorra ezartzea justifikatzen duten gertakariak frogatutzat jotzea da, eta errekurtsioan proposatutako froga-eginbideak gaitzetsi egin behar dira, beharrezkoak ez direlako.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

## ERABAKI DU

Leioa Kirol Elkarteak Kirol Justiziako Euskal Batzordean aurkeztutako errekurtsioa ezestea; errekurtsio horren bitartez, Euskadiko Futbol Federakundearen Apelazio Batzordearen 2017ko urtarrilaren 3ko Ebazpenaren aurkako errekurtsioa aurkeztu zen, izan ere, Ebazpen horretan, Leioa Kirol Elkarteak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Batzordearen 2016ko abenduaren 20ko Ebazpenaren aurka aurkeztutako Errekurtsioa ezestea erabaki baitzen.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, haren aurka aukerako berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute, Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia



jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 16a

José Luis Aguirre Arratibel

**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN PRESIDENTEA**